


GIDA DIDAKTIKOA




BALEUKO




AURKIBIDEA

IKASLEARENTZAKO MATERIALA	3
1. JARDUERA: KAZETARI LANETAN	4
a.) Ikerketa	
b.) Informazio lanketa	
d.) Aurkezpena	
2. JARDUERA: ZINE FORUMA	9
3. JARDUERA: FILMAREN IRUZKINA	10
4. JARDUERA: GAUR EGUNGO BEGIETATIK	15
IRAKASLEARENTZAKO MATERIALA	17
FILMARI BURUZ	18
METODOLOGIA.....	20
GAITASUNAK.....	21
HELBURUAK	24
EBALUAZIOA	25



IKASLEARENTZAKO MATERIALA



FILMA IKUSI AURRETIK

1. JARDUERA: Kazetari lanetan



Ikerketa

Askotan film bat ikusten hasten garenean ulertezina egiten zaigu. Horretarako arrazoiak asko izan daitezke. Filmean azaltzen den garai historikoa ezezaguna delako, gidoia korapilatsuegia edo protagonistak arraroegiak...

Horregatik, film bat ikusi aurretik informazioa eskuratzea, ikerketa txiki bat egitea, ideia ona izan daiteke. Zenbat eta gehiago jakin, gehiago gozatu ahal izango duzue pelikularekin.

Ikerketa lan hori, ordea, nondik hasi? Kazetariak badute horretako formula bat. Ondorengo sei galdera hauen erantzuna bilatzen dute: **Zer? Noiz? Non? Nor? Nola? Eta zergatik?**

Goazen gu ere kazetari lanak egitera. Galdera horien erantzuna bilatzen hasiko gara, eta horrela ikusiko dugun filma askoz ere hobeto ulertuko dugu. Aurretik, ordea, filmari buruzko informazio pixka bat irakurtzea komeni da:




Ama, nora goaz?

Ama, nora goaz? film dokumentalak Espainiako Gerra Zibilean Gipuzkoatik kanporatuak izan ziren emakumeen eta umeen istorioa kontatzen du. 1936ko udazkena da filmaren abi apuntua. Frankistek Gipuzkoa bereganatu eta berehala bando errepublikarreko herritarren kontrako neurriak hartu zituzten, eta Errepublikaren alde frentean borrokan ari ziren gizonen emazteak biktima zuzenak izan ziren. Senarrak frentetik itzultzen ez baziren Gipuzkoatik kanporatuak izango ziren.

Esan eta egin. 1937ko neguan Gipuzkoako 14 herrietako 1.000 emakume eta haur kanporatu zituzten. Errepublikaren alde frentean borrokan ari ziren gizonen emazteak ziren, abertzaleak eta errepublikazaleak. Haien etxetatik bota zituzten, eta seme-alabak besoetan norabide jakinik gabeko bidaia hasi zuten. Kamioiez, oinez ala itsasontziz, baina beti ere bando frankistaren bonbetatik ihesi. Hilabete eta urte luzeetako gurutzebidetaren ondoren etxera itzultzea lortu zuten batzuk. Beste batzuk ez ziren inoiz itzuli.

80 urte geroago exodo horren protagonista izan ziren emakumeei hitza eman die *Ama, nora goaz?* film dokumentalak. Herriz-herri haien testigantzak jaso ditu, eta urte hauetan guztietan barruan gordeta izan dituzten bizipenak azalarazteko aukera eman die.



Orain bai, informazio eskuan, prest gaude lehen aipatu ditugun galderen erantzunak bilatzeko. Horretarako, sei taldetan banatuko gara, eta talde bakoitzak galdera baten erantzuna bilatuko du.

Ondoko hauek dira galderak:

- 1 .Zer?** Zer da Espainiako Gerra Zibila? Zer gertatu zen gerra hasteko? Zer defendatzen zuen gerran elkarren aurka aritu ziren bi aldeetako bakoitzak?
- 2 .Noiz?** Noiz hasi zen Espainiako Gerra Zibila? Noiz iritsi zen Euskadira? Noiz bukatu zen guztia?
- 3 .Non?** Non hasi zen Espainiako Gerra Zibila? Non hasi ziren Euskadiko lehen enfrentamenduak? Non izan ziren bonbardaketa gogorrenak?
- 4. Nor?** Nortzuk izan ziren Gerra Zibileko bi bandoak? Nor zegoen Errepublika jarraitzearen alde, nortzuk kontra? Nor, nortzuk dira, ikusiko dugun filmaren protagonistak? Gatazkaren parte aktibo izan ziren?
- 5. Nola?** Nola hasi zen Espainiako Gerra Zibila? Nolako jokaera izan zuten euskal alderdi politikoek altxamenduaren aurrean? Nolako zen Gerra Zibilaren garaian emakumeen bizimodua?
- 6. Zergatik?** Zergatik piztu zen Gerra Zibila Espainian? Zergatik bonbardeatu zituzten Euskadiko hainbat herri? Bando frankistak zergatik egin zuen filmeko protagonistak diren emakumeen kontra?



Informazioa bilatzeko Internet erabil dezakezue, baina oso informazio gutxi duzue euskaraz. Dena den, hona hemen helbide lagungarri batzuk:


<http://gerrazibila.wordpress.com/about/>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Espainiako_Gerra_Zibila

http://eu.wikipedia.org/wiki/Espainiako_Gerra_Zibila_Euskal_Herrian

<http://www.hiru.com/historia/la-guerra-civil-espanola>

<http://www.hiru.com/historia/la-guerra-civil-espanola-en-euskal-herria>



ama, nora goaz?

<http://www.slideshare.net/MentxuGandarias/gerrazibila-eta-euskal-estatutua>

Gaztelaniaz:

<http://www.guerracivil1936.galeon.com/guerracivil.htm>

<http://www.historiasiglo20.org/HE/14.htm>

<http://www.guerracivil.org/>

http://joselc.wanadooatl.net/guerra_civil.htm

<http://www.elhistoriador.es/guerracivilmapas.htm> (Gerra Zibileko mapa batzuk)

Halaber, zuen testuliburua edo liburutegiko entziklopediak erabil ditzakezue.



Informazioaren lanketa

Aurkitutako informazio guztia irakurri ondoren, informazio hori prestatu beharko duzue beste taldeei kontatzeko. Horretarako ideia nagusiak bildu, laburtu eta zuen hitzak erabilia berridatzi testu bat, ahaztu gabe testu horrek ulertzeko moduko egitura izan behar duela.

Zure testua idatzi baino lehen gogoratuko dugu **zer egiten duen idazle on batek**:

Asmo bat du: idazten duen testuarekin badaki zer lortu nahi duen.

Irakurleak nortzuk izango diren kontuan hartzen du.

Planifikatu egiten du testua. Ideiak bildu eta antolatu eskema batean.


Testua **idazten** du. Eskema testu idatzia bihurtuko du.

Laguntza erabiltzen du: hiztegiak, informazio iturriak, gramatika eta ortografia liburuak...

Birpasatu egiten du i datzitakoa, ea betetzen duen hasierako helburua, eta behar rezkoa bada **zuzendu** ere bai.

Talde lana izango denez, **lana antolatu eta banatu beharko duzue**





Informazioa azaltzen

Beste taldekoei prestatutako informazioa azaldu behar diezue. Azalpen horiek emateko hizlari gehienek egiten duten bezala ikusmeneko euskarria prestatutako behar duzue. Betiko horma-irudiak edo euskarri digitalak (PowerPoint-a, glogsterra, wikia, dipityrekin denbora lerroa...) izan daitezke. Hona hemen laguntza pixka bat:

Glogster on-line aplikazioa: Ez dago programarik deskargatu eta instalatu beharrik, lan guztia Interneteko gune batean egin eta gune horretan bertan gordeko delako. Irudiak, grafikoak, audioak eta bideoak txertatzeko aukera ematen



du. <http://edu.glogster.com/> helbidean irakasleak bere posterrak egiteaz gain ikasleen kontuak kudeatzeko aukera du. (tutorialak: <http://www.slideshare.net/tutorialestic/tutorial-glogster-4502442> <http://www.slideshare.net/bermarvez/golglaivotut1>)

Denbora lerroen erabilera didaktikoak eta horiek egiteko programa batzuk: http://www.slideshare.net/marimarpego/posibilidadesdidacticasdela-lineasdel-tiempo-presentation?from=ss_embed



Hemen denbora lerroak egiteko programa baten tutoriala (dipity) :

http://bloggeandolenguas.com/tutoriales/Dipity_1.swf

Wiki deitzen zaio elkarren artean lotutako orrialde-multzoak osatzen duen webguneari.


Erabiltzaileek orrialde horiek elkar lanean sortu, aldatu edo ezaba ditzakete. **Wikipedia** da denok ezagutzen dugun wikia. Hemen bi helbide zuei laguntzeko wiki bat egiten:

<http://www.slideshare.net/arasanse/wiki-bat-egin>

<http://dcmintegia.wikispaces.com/WIKIAN+LAN+EGITEKO+JARRAIBIDEAK>



Besteei kontatzeko ordua heldu da! Ikasle guztiak azaldu behar dute zerbait. Aurretik erabaki behar duzue bakoitzak zer azalduko duen. Zuen kideek adi entzungo dituzte zuen azalpenak eta hurrengo taula beteko dute:




ONDOKO TAULA HONETAN ESKATZEN DEN BEZALA BALORATU ENTZUNDAKO AZALPEN GUZTIAK, ZUREA BARNE:

ideiak antolatuta daude, ordenatuta eta objektiboki transmititu ditu	
astiro hitz egin du eta ondo ahoskatu du	
intonazioa egokia da, hitz-gakoak nabarmendu ditu; ez da ez monotonia ezta nabarmenegia ere	
naturaltasunez hitz egin du, ez du ematen buruz ikasi duela, ezta ez duela prestatu ere.	
hitz zehatzak erabili ditu	
ez du "makulu" hitzik erabili	
keinuak egin ditu adierazkorragoa izateko	
entzuleei begiratu die, baina begirada ez dago puntu batean galduta	
entzuleen arreta lortu du	
erritmo egokia mantendu du	

Baloratu zure ahozko azalpena: **1 2 3 4 5 6 7 8 9 10**

Ikaslea eta gaia	Zer egin du ondo?	Zer hobetu behar du?	Bere azalpenaren balorazioa
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Azaldutako testuak irakasleak jaso, zuzendu, baloratu, fotokopiatu eta banatu egingo ditu denon artean. Horrela irakurri eta ikas dezakezue bildutako informazio guztia.



FILMA IKUSI BITARTEAN


2. JARDUERA: Zine foruma

Kazetari on batzuek bezala, gaiari buruz ondo informatu eta gero, filma ikusteko garaia iritsi da. Ahalik eta gehien gozatu, baina ez hori bakarrik. Arreta ere jarri behar duzue, filmaren bukaeran hainbat galdera erantzun beharko dituzue eta.

Beraz, adi jarraitu filmaren kontaketa, gertakizun historikoaren narrazioa eta pertsonaia bakoitzaren ezaugarriak.

Hiru, bi , bat... Has dadila *Ama, nora goaz?*





FILMA IKUSI ONDOREN

3. JARDUERA: Filmaren iruzkina

Hollywoodeko filmetan esaten duten bezala: *The End...* Bukatu da *Ama, nora goaz?* filma, eta orain zuei dagokizue galderak erantzutea.

Galderak:

- Zer iruditu zaizue?
- Ezagutzen al zenuten emakume hauen istorioa?
- Zuen aiton-amonek kontaktu al dizuete inoiz antzeko istorioarik?
- Nola definituko zenituzkete filman azaltzen diren emakumeak?



Protagonistak, banan-banan


Orain, filmeko protagonistak banan-banan aztertuko ditugu. Bakoitzaren argazkiaren ondoan bere definizioa idatzi beharko duzue (hitz bakar batean). Ondoren, definizio horren zergatia zabalago azaldu beharko duzue.

LORE ALBIZU



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



ama, nora goaz?

MARGARI ALBIZU



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....

EDURNE AIZPURUA



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....

JOSUNE SASIAN



Testua


.....
.....
.....
.....
.....
.....

LIDE BALENTZIAGA



Testua

.....
.....
.....
.....
.....



ama, nora goaz?

ITZIAR SAGARZAZU



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....

MATILDE AIZPURUA



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....

ANITA USIN



Testua


.....
.....
.....
.....
.....
.....

AGATE SODUPE



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....



ama, nora goaz?

TERE LARRAR



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

GARBIÑE ANDONEGI



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

ARANTZA BULLAIN



Testua


.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

BÁRBARA RIVAS



Testua

.....
.....
.....
.....



ESTHER REMIRO



Testua

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....




Zine solasaldia

Pelikulako pertsonaiei buruzko iritzia idatzi ondoren, iritzi hori konpartitzeko garaia da. Taldeka elkartuko zarete, eta pertsonaia bakoitzari buruz idatzi duzuen taldekoei jakinaraziko diozue:



Orain badakizue zuen klasekideen iritzia. Honenbestez, zinemazaleek egin ohi duten bezala, solasaldiari edo debateari ekingo diogu.

Hona hemen galdera batzuk, debatea pizten lagunduko dut enak. Klasekidearena errespetatuz, eman zuen iritzia beldurrik gabe.



Galderak:

-Ados al zaudete zuen taldekideek idatzitakoarekin?

-Zein da *Ama, nora goaz?* filmako zuen pertsonaiarik gogokoena? Zergatik?

-Zein da entzun dituzuen istorio edo anekdoten artean gehien gustatu zaizuen?



Zine kritika

Inoiz ikusi al duzue egunkari edo aldizkari batean film bati buruzko kritika bat?

Zine kritikariek idatzi ohi dit uzte. Filmaren gidoia, aktoreen lana edo istorioaren sinesgarritasuna epaitzen dute. Horrekin batera, filmak sortu dizkien sentrazioak, gogoetak edo pentsamenduak ere idazten dituzte. Azkenik, ikusitako filmari nota jartzen diote.

Zuek ere egin nahi al duzue zine kritikari lana?

Filma ikusi, pertsonaiak aztertu eta klasekideen iritzia entzun eta gero, behar duzuen informazio guztia duzue *Ama, nora goaz?* filmari buruzko kritika idazteko.

Aurretik, ordea, hona hemen prentsan argitaratu diren beste film batzuei buruzko kritikak. Lagungarri egingo zaizkizue zuena idazteko:

www.argia.eus/film-kritikak

http://www.berria.eus/egilea/gontzal_agote

www.zinea.eus (kritikak)

Zuen txanda da orain.

Zure testua idatzi baino lehen gogoratuko dugu **zer egiten duen idazle on batek:**

Asmo bat du: idazten duen testuarekin badaki zer lortu nahi duen.

Irakurleak nortzuk izango diren kontuan hartzen du.


Planifikatu egiten du testua. Ideiak bildu eta antolatu eskema batean.

Testua **idazten** du. Eskema testu idatzia bihurtuko du.

Laguntza erabiltzen du: hiztegiak, informazio iturriak, gramatika eta ortografia liburuak...

Birpasatu egiten du idatzitakoa, ea **betetzen duen hasierako helburua, eta beharrezkoa bada zuzendu ere bai.**

Idatzitako testuak jaso eta zuzendu ondoren, ikasle bakoitzari itzuliko dizkio irakasleak.



FILMA IKUSI ONDOREN

4. JARDUERA: Gaur egungo begietatik

Ikusi dugun bezala, 1936ko udazkena da *Ama, nora goaz?* film dokumentalaren abiapuntua. Gaur egungo begietatik ikusita urrutiko gertaera. Izan ere, Historiako gertakariak aztertzen ditugunean urruti ikusten ditugu askotan. Baina ez al daude uste baino gertuago? Gaur egun ere ez al dira antzeko gertakariak pasatzen munduan?

Ondo pentsatu eta erantzun hurrengo galderi:


- Gaur egun gertatzen al da horrelakorik munduan?
- Ezagutzen al duzue antzeko kasuren bat?
- Zer da errefuxiatu bat? Zer esan nahi du errefuxiatu hitzak?



Informazio bilaketa

Sartu interneten eta bilatu errefuxiatu hitzaren esanahia:

www.euskara.euskadi.net (Elhuyar hiztegia)
www.euskaltzaindia.eus (Hiztegi Batua)



Orain sartu egunkarietako webgunetan, eta bilatu errefuxiatuei buruzko albisteak.

Euskaraz: www.eitb.eus; www.berria.eus; www.naiz.eus/ 'k k k 'U[]U'Yi g

Gazteleraz: www.diariovasco.com; [www.deia.coa /](http://www.deia.coa/) 'k k k 'Y'W'ffYc 'W'a / 'k k k 'Y'dU]g'W'a

Galderak:

- Orain argi al duzue zer den errefuxiatu bat?
- Nongoak dira Europara iristen diren errefuxiatuak?



B Irudimena lantzen


Orain taldetan banatu, eta jarri irudimena abian. Zuen ideak behar ditugu. Hauxe da galdera: Zer egin dezakegu Gerratik ihesi joaten den jendeari laguntzeko?




C Aurkezpena

Taldean sortutako ideiekin zerrenda bat egin eta klasekideen aurrean aurkeztu.

Azaldutako ideiak irakasleak jaso, zuzendu, baloratu, fotokopiatu eta banatu egingo ditu denon artean. Horrela irakurri eta ikas dezakezue bildutako informazio guztia.



IRAKASLEARENTZAKO MATERIALA



FILMARI BURUZ

AURKEZPENA:



“Egun batean aitak etxetik alde egin zuen. Amari zergatia galdetu genionean eskutitz bat erakutsi zigun: “Rojo separatista organizador de fiesta vasca...” Ez nuen gauza handirik ulertu, baina Udaletik bidalitako eskutitz bat zela esan zigun amak, aitaren kontrako salaketa. Handik egun batzuetara gizon bat etorri zen etxera, txapela gorria zuen eta pistola eskuan: “Tenéis que iros, tenéis que iros del pueblo”, agindu zigun. Hurrengo


goizean atera ginen, ama eta zortzi seme-alaba. Euria ari zuen, eta oinez egin genuen Zestoatik Elgoibarrera arteko bidea. Mendietan tiro-hotsak entzuten ziren, eta amak guardasolaren gaineko aldean zapi txuri bat jarri zuen. “Horrela ez digute tiro egingo”, esaten zigun. Nik ez nuen ezer ulertzen, eta etengabe galdera bera egiten nion: Ama, nora goaz?”

Gerra Zibilean etxetik kanporatu zuten emakume baten testigantza jaso dugu lehen paragrafoan. Emakume anonimo baten testigantza. Izan ere, Gerra Zibileko istorioak behin eta berriro entzun ditugun arren, norik ezagutzen du Gipuzkoatik kanporatu zituzten emakumeen eta umeen istorioa? 80 urtez isilpean mantendu den istorio bat da, *Ama, nora goaz?* dokumentalak azaltzen duena.

1936ko udazkenean hasi zen guztia, Frankistek Gipuzkoa bereganatu eta berehala. Gipuzkoako herrietan bando errepublikarreko herritarren kontrako neurriak hartu zituzten, eta Errepublikaren alde frentean borrokan ari ziren gizonen emazteak biktima zuzenak izan ziren. Senarrak frentetik itzultzen ez baziren Gipuzkoatik kanporatuak izango ziren.

Esan eta egin. 1937ko neguan Gipuzkoako 14 herrietako 1.000 emakume eta haur kanporatu zituzten. Errepublikaren alde frentean borrokan ari ziren gizonen emazteak ziren, abertzaleak eta errepublikazaleak. Haien etxetatik bota zituzten, eta seme-alabak besoetan norabide jakinik gabeko bidaia hasi zuten. Kamioiez, oinez ala itsasontziz, baina beti ere bando frankistaren bonbetatik ihesi. Hilabete eta urte luzeetako gurutzebidearen ondoren etxera itzultzea lortu zuten batzuk. Beste batzuk ez ziren inoiz itzuli.

80 urte geroago exodo horren protagonista izan ziren emakumeei hitza eman die *Ama, nora goaz?* dokumentalak. Herriz-herriz haien testigantzak jaso ditu, eta urte hauetan guztietan barruan gordeta izan zituzten bizipenak azalarazteko aukera izan dute. Gertakarien kontakizun zehatza egin dute, baina beti ere emozioetan oinarritua.



Dokumental historikoetan ohikoak diren datuak alde batera utzi gabe, exodo honen krudeltasuna emozio eta sentimenduen bitartez helaraztea da lan honen helburua. Hori guztia, zuzeneko testigantzekin eta orain arte inoiz ikusi ez den ikuspegi batetik: emakumeen ikuspegitik. *Ama, nora goaz?* dokumentaleko protagonista guztiak emakumezkoak dira. Orain arte haien historia kontatzeko aukerarik izan ez duten emakumeak.

SINOPSIA:

Alzheimerrak hitza kendu dio amonari (Itziar), eta bere istorioa galdu ez dadin kontatzeko beharra sentituko du ilobak (Haizea). Horretarako, bere amonaren esperientzia bera izan duten emakumeak bisitatu eta haien istorioak entzungo ditu.


Ez da horretara mugatuko, ordea. Argazkilaria da bera, sentikortasun handiko emakumea, eta dokumentalean zehar amonaren zimurrei argazkiak ateratzen ikusiko dugu, baita bisitatzen dituen lekuei ere.

Argazki horiekin guztiarekin, zimurrekin eta paisaiekin, kanporatutako emakumeen historiaren erretratua osatuko du. Dokumentalaren bukaeran bere amonari egingo dion oparia, omenaldia izango da.

DATU TEKNIKOAK

- ZUZENDARIA: *Iban Gonzalez Pagaldai*
- PRODUKTOREA: *Karmelo Vivanco*
- PRODUKZIO ZUZENDARIA: *Asier Bilbao*
- GIDOILARIA : *Jon Gonzalo*
- ARGAZKI ZUZENDARIA: *Iban Gonzalez Pagaldai*
- ARGAZKIA: *Ramon Larrabaster*
- ZUZENeko SOINUA: *Ramon Larrabaster*
MAKILLAJEA: *Maite*
AKTOREAK: *Bárbara Rivas eta Esther Remiro*

EKOIZTETXEA: **BALEUKO**



METODOLOGIA


Material honen xedea gaitasunak lortzea izan da, planteatzen diren jarduerak kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak modu bateratuan landuta. Planteatutako proiektuak erraztu egiten ditu gaitasun guztiak ikasleei helarazteko bidea eta baita ikasgaien arteko prozesuen diziplinartekotasuna ere.

Proposatutako jarduerak beren kabuz ikastea, taldean lan egitea eta ikerketa egokiak aplikatzea bultzatzen dute, eta posible da departamendu bat edo batzuek inplikatzeko ikasleen gaitasunak osotasunean garatzeko asmoz. Irakurtzeko interesa eta ohitura eta jendaurrean egoki adierazteko gaitasuna pizten duten jarduerak proposatu dira, eta informazio-komunikazio teknologien erabilera ere. Ikasleak entzule aktiboak izango dira, auto-ebaluazioa eta auto-zuzenketa estrategiaren erabilera hobetzeko asmoz.

Ikaslea bere ikasprozesuaren protagonista bilakatuko da; ez da izango informazio prozesatzen duen norbait pasiboa, hartzaile aktibo eta kontzientea baino. Azken finean, berak hartuko du ardura prozesuan, eta ez hainbeste ekoizpenean; erabakiak hartzeko prest egongo da, eta bere ikasprozesuaren jabe izango da. Ikaslearen ardura betidanik informazioa jaso, buruz ikasi eta ikasitako hori errepikatzea baino ez delako izango.

Aipatu den bezala, proposamen honek diziplinartekotasuna ahalbideratzen du eta irakasgai desberdinetako saioetan landu zitezkeen. Beraz, Espainiaren Historiako saioez gain, Filosofiaren Historiakoak, Euskara eta literaturakoak, Gaztelania eta literaturakoak eta Atzerriko hizkuntzakoak erabil zitezkeen, hau da, Batxilergoko bigarren mailako irakasgai orokor guztiak.

Esan bezala, irakasleak erabakiko du zein jarduerak egin. Denak egitea erabakitzen badu, dagoen ordenan egitea proposatzen da, azken jarduera edo atazaraino.



UNITATEAK EGITEN DUEN EKARPEN A OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO


IKASTEN IKASTEKO KONPETENTZIA

Jarduerak: 1,2,3,4

- Informazioa lortzeko abileziaren garapena, liburuak edo iturri digitalak erabiliz eta ikerketa teknikak landuz.
- Informazio berria lehenagoko ezagutzekin eta esperientzia pertsonalarekin lotzeko praktika, ezagutza eta gaitasun berriak antzeko egoeretan eta askotariko **testuinguruetan aplikatzen jakinik**.
- Norbere burua ebaluatu eta erregulatzeko gai izatea, erantzukizun eta konpromiso pertsonala izatea, ahalegina kudeatzen, okerrak onartzen eta besteengandik eta besteekin ikastea.
- Informazioa antolatzeke, buruz ikasteko eta berreskuratzeko tekniken garapena: laburpenak, eskemak, kontzeptu-mapak...eta nor bere iritzia osatzeko ahalmena lantzeko estrategien garapena.
- Zenbait arrazoinamendu mota (induktiboa, deduktiboa...) aplikatzeko ematen dituen aukerak aprobetxatzea.
- Pentsamendu erlatibistaren garapena: landuko den gaia sortuko dituen ikuspegi, jarrera ideologiko eta korrante zientifiko ezberdinak kontuan hartuta, baita hainbat eratako joera eta aurreiritziak ere.

NORBERAREN AUTONOMIARAKO KONPETENTZIA

- Taldeko ekintzak eta proiektuak asmatzeko, abiarazteko, garatzeko eta ebaluatzeke; hori dena lortzeko izan behar den sormena, konfiantza, ardura eta zentzu kritikoa.
- Plangintzetarako eta horiek gauzatzeko ekimenak bultzatzea, baita erabakiak hartzeko prozesuak bultzatzea ere.



TEKNOLOGIA ETA OSASUN KULTURAKO KONPETENTZIA

Jarduerak: 1,2,4

- Zorroztasun zientifikoa zientzia formaletan eta zientzia esperimentaletan aplikatzen den bezala giza zientzietan aplikatzea; zorroztasuna erabiliz eta azpimarratuz kontzeptu egokiak erabiltzea, informazioa era kritikoan aztertzea, historiaren bilakaeran esku hartzen duten faktoreak bereizi eta erlazionatzea, garaiak zehaztean zorrotz jokatzeara...

INFORMAZIOA TRATATZEKO ETA TEKNOLOGIA DIGITALA ERABILTZEKO KONPETENTZIA


Jarduerak: 1,2, 3, 4

- Informazio tratatzeko era hobetzea, edozein euskarritako informazio iturriak bilatzen, lortzen eta tratatzen.
- Informazioaren aukeraketan objektibotasuna eta egokitasuna erabiltzea eta informazio-iturriak aztertzeke era kritikoa eskuratzea. Informazioa bilatzen ikastea, azpimarratu behar da ezinbestekoa dela informazioa ulertzea eta aztertzea, eragotzi behar dugu ikasleen lana bilatzea, kopiatzea eta itsastea besterik ez izatea.

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

Jarduerak: 1,2, 3, 4,

- Bai idatziz bai ahoz, diskurtso/testu ezberdinak erabiltzeko trebetasunen garapena.
- Ikasitakoa egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez adierazteko abilezia lantzea, eta bide batez, iritzi kritikoa osatu, ezagupena egituratu eta lanei koherentzia eman.
- Oinarrizko hiztegia aberastea eta hitzik gabeko hizkuntza, ikur eta irudien bidezkoaren garapena.



GIZARTERAKO ETA HIRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA


Jarduerak: 1,2, 3, 4

- Gizartearen errealitatea ulertu, egungoa historikoa ulertu: gizartearen garapena eta antolakuntza ezagutu, bere lorpenak eta bere arazoak.
- Enpatiaren trataera eta elkarbizitza errazten duten sentimendu komunak sortzea.
- Arazo/gatazkei modu baketsuan eta demokratikoki aurre egiteko eta bizikidetzan adosteko prestatzea.
- Gaitasun sozialen ikaskuntza. Elkarrizketaren garrantzia ulertzea, arazoaren irtenbidea lortzeko beharrezko bide gisa, ahaztu gabe norberaren iritziekin bat ez datozenenganako errespetua.
- Pertsona bakoitzak bere identitatea garatzen eta bere burua bakar eta errepikaez in erakitzea.

GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO KONPETENTZIA

Jarduerak: 1,2,3,4

- Arte-adierazpenak ezagutzea, kasu honetan zinea, aztertzea eta baloratzea eta baita artearekiko sentsibilizazioa eta arteaz gozatzeko trebetasunak eskuratzea ere.
- Bizitza kulturala ezagutzea eta bertan parte hartzeko jarreraren garapena.




ama, nora goaz?

HELBURUAK

1. Ikasleak bere burua ezagutzea, heldutasun prozesuan aurrera pausuak ematea eta horretarako besteekiko harremanetan bertute eta akats pertsonalak ezagutu eta hobetzea.
2. Bigarren Errepublikaren aurka egindako altxamendu militarra sortzeko eragileak aztertzea.
3. Gerra Zibilaren aldiak deskribatzea.
4. Alde bakoitzak izan zituen barne zein kanpo laguntzak ezagutzea.
5. Espainia nazionalaren ezaugarri politikoak eta sozialak adieraztea.
6. Espainia errepublikazalearen ezaugarri politikoak eta sozialak adieraztea.
7. Bi alderdien oinarri ideologikoa ezagutzea.
8. Eguneroko bizitza nolakoa zen ikertzea.
9. Gerra Zibila Euskadin deskribatzea.
10. Gerra Zibilaren amaiera eta haren ondorioak azaltzea.
11. Emakumeen egoera Espainian XX. mendeko lehenengo erdialdean ezagutzea.
12. Filma interpretatzea eta kritikoki balioestea, filma osatzen duten elementuak identifikatzea, ulertzea eta erlazionatzea errealitatearekin.
13. Informazioa lortzeko, lantzeko eta ebaluatzeko prozedurak erabiltzen ikastea, ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko.
14. Ahoz eta idatziz, diskurtso koherenteak, zuzenak eta egokiak ekoiztea.
15. Testuen ulermena, azterketa eta iruzkinak hobetzeko prozedura egokiak erabiltzea, eta testu mintzatu nahiz idatziz planifikatzea, ekoiztea eta zuzentzea.
16. Informazio iturriak eta teknologiak autonomiaz, espiritu kritikoz eta jarrera etikoz erabiltzea, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta lantzeko, hizkuntza mintzatu eta idatzia bizitza sozial eta kulturalerako testuinguruetan eraginkortasunez erabili ahal izateko.
17. Hizkuntza eta irakasgai guztietan ikasitako komunikazio-ezagutzak eta – estrategiak erabiltzea.
18. Norberaren ikasprozesuei buruz gogoeta egitea, ikasteko autonomia garatzeko.

EDUKIAK

1. Emakumea Espainian XX. mendeko lehenengo erdialdean.
2. Ahozko eta idatzizko testu egoki, koherente, kohesionatu eta zuzenen ekoizpena.
3. Euskarri inprimatu eta digitaletatik abiatuta, informazioa lortzeko, lantzeko eta ebaluatzeko prozedurak erabiltzea, ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko.
4. Ahozko aurkezpen planifikatuak egitea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta ikus-entzunezko bitartekoen erabilera, ahozko jardunean laguntzeko.
5. Gaurkotasanari buruzko -eta jarduera akademikoko-eztabaidetan eta elkarrizketetan modu aktibo eta kritikoa parte hartzea, arau sozialak eta komunikatiboak errespetatuz.
6. Norberak ebaluatzeko, elkarrekin ebaluatzeko eta norberak zuzentzeko estrategiak erabiltzea, ahozko eta idatzizko jarduna hobetzeko.
7. Ahozko jardunean ahoskera eta intonazio egokiak erabiltzeko interesa izatea, eta hari dagozkion arauak betetzea.
8. Konbentzitzeko mezuen aurrean hausnarketa eta kritika egitea.
9. Gerraren ondorio larriez ohartzea eta gizarte baketsua eraikitzeko guztion lana beharrezkoa dela




Adierazleak (zenbakiak adierazten dute dagokien helburua):

- 1 Ea besteen iritziak eta jarrerak errespetatzen dituen eta berak egindako hutsegiteak onartu eta zuzentzen dituen.
 - 2 Ea identifikatzen duen Espainiako Gerra Zibila piztu zuten faktoreek.
 - 3 Ea Gerra Zibilaren fase nagusiak bereizten dituen.
 - 4 Ea alde bakoitzak izan zituen barne zein kanpo laguntzak ezagutzen duen.
 - 5 **6. 7. 8.** Ea gerra bitartean egon ziren alderdien ezaugarriak identifikatzen dituen.
-
9. Ea Gerra Zibilaren garaian Euskadin gertatutakoaren ezaugarriak ezagutzen dituen.
 10. Ea gerraren ondorioak zein izan ziren identifikatzen dituen.
 11. Ea emakumearen egoera Espainian XX. mendeko lehenengo erdialdean ulertzen duen.
 12. Ea ondorioak ateratzen dituen filmean aztertutako gertaera historikoaz.
-
12. Ea filma osatzen duten elementuak identifikatzen, ulertzen eta erlazionatzen duen errealitatearekin.
 13. Ea bilatutako informazioa ulertu eta ondo azaltzen duen.
-
13. 14. 15. Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen eta informazioa lortzeko, lantzeko eta ebaluatzeko prozedurak ondo erabili dituen, ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko.

EBALUAZIOA

13. 14. 15. Ea ahozko eta idatzizko testu egoki, koherente, kohesionatu eta zuzena ekoiztu duen.
 13. 14. 15. Ea ahoskera eta intonazio egokia erabiltzen duen.
 14. Ea argi hitz egiten duen egoera bakoitzean erregistro egokia erabiliz.
 15. Ea entzute prozesuan besteen lana baloratzen duen eta adi entzuten duen.
-
15. Ea lana planifikatu duen.
 16. 17. Ea ikerketa lanean parte aktiboa hartu duen eta besteen parte hartzeak errespetatu duen.
 16. Ea IKTak autonomiaz erabiltzen dituen.
 17. Ea jarrera positiboa eta aktiboa duen bere esperientzia eta ikuspegia adierazten, eta bere ikuspuntuak zentzuz azaltzen dituen.
 17. Ea gainerakoen ikuspuntuak kontuan hartzen, ulertzen eta errespetatzen dituen, eztabaidetan. Ea gaintzen dituen ikuspegi berdintzaileak eta hertsia.
 18. Ea auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa-estrategiak eta elkarrekin ebaluatzeko estrategiak erabiltzen dituen, ahozko eta idatzizko jarduna hobetzeko.
-
18. Ea autonomiarik duen lanak prestatzeko eta egiteko.
 18. Ea aurrez markatutako epeak errespetatzen dituen.



Tresnak:

- ⑩ Jardueren sekuentzian:
 - Hasierako ebaluazioa: zer dakizue gaiari buruz? Gelan, hasi baino lehen.
 - Prozesuaren ebaluazioa: gainontzeko jarduerak
 - Azken ebaluazioa: zine forumean parte hartzea, ikasle bakoitzaren ekoizpenak eta Gerra Zibilari buruzko azterketa objektiboa
 - Irakasleak erabiliko duen beste edozein